

# Euskararen Nazioarteko Eguna

Euskararen Nazioarteko Eguna (ENE) Eusko Ikaskuntzak sortu zuen 1949an. Eta Elkarteak, XXI. mendean, gizarteko aldaketa eta erronka berrietara egokituz, gogo biziz eusten dio euskal hizkuntzari bere lan arlo guztietan. Nestor Basterretxeak, euskal artistak, 2005ean diseinatutako ENE logoa da, bestalde, urteroko ospakizunaren identifikazio ikurra.

**Euskararen Nazioarteko Egunaren prentsaurrekoa**

---

## BERTSOLARI GAZTEAK

2007ko edizioan urrats berri bat eman nahi izan du, euskal gazteengana zuzenduz. Euskara, gazteen altxorra eta hizkuntza izan dadin apustua egin nahi dugu eta horregatik, bost bertsolari gaztek eramango dute aurrean ENERen lekukoa. Abenduaren 3an ospatzen den ENE-ren ikur izango dira horien bertsoak.

---

## Bertsolariak

- [Xabi Paya](#)
  - [Sustrai Kolina](#)
  - [Oihane Perea](#)
  - [Uxue Alberdi](#)
  - [Jose Juan Zubieta "Etxabe"](#)
- 



Interpretaritzita eta itzulpengintza eta piano ikasketak ditu eginak. Itzultzaile, bikoizlari, ikerlari eta irakasle lanetan ibilia da. Fredi anaiarekin eman zuen izena Algortako bertso eskolan, eta eskolaratean nahiz Txapelketetan emaitza bikainak lortu izan ditu. Bizkaiko (2006) txapelduna da. Bertsozale elkarteetan eta bestela saltsa askotan dabil.

[ [Payaren Biografia osoa](#) ]

---

## Euskara eta immigrazioa

Mundua ez da inoiz gelditzen  
 beti mugi eta mugi  
 bere gaineko oin aztarnen  
 ispilu eta irudi  
 erreka hatek hereizten du

etena euren eurenen da  
mundu bat eta mundu bi  
igerian joan zintezke  
eta uretan isuri  
baina hizkuntzak batzen ditu  
mutur bi ezker eskubi  
utzi euskarari izaten  
zure bide eta zubi (bis)

 [Ikus Bideoa](#)

---

## Euskara eta immigrazioa

Lurra bat bakarra da baina  
zenbat lur eta lurralde  
lurrazala ez da egiten  
bere gainekoen jabe  
lurra norberak egiten du  
belar harri edo hare  
lur bakoitza ezberdina da  
iragan eta ondare  
euskal herrira etorzen da  
etorkin asko halare  
euskal herrira iristera  
sekula iritsi gabe (bis)

 [Ikus Bideoa](#)

---